

Bilbo, 2024ko urtarrilaren 2a.

KLUB GUZTIEI:

2023ko abenduaren 28an, Batzar Nagusiak, ohiko bilkuran, lizentzien eta gradu txartelen prezioak onartu zituen, eta honela geratu dira:

- Karate eta Elkartutako Diziplinen 2024ko lizentzia:
 - 50 € (eskatzen den lehen lizentzia, estamentua edozein dela ere)
 - 20 € (eskatzen den bigarren lizentzia, estamentua edozein dela ere)
 - 10 € (eskatzen den hirugarren lizentzia, estamentua edozein dela ere)

Lizentziei buruzko Erregelamendua betez, non kirolari lizentzia, teknikari lizentzia eta epaile lizentzia ezartzen diren, honako hauek adieraziz: ***“Bateragarria izango da federazioko pertsona fisikoen estamentu bakoitzeko lizentzia baten titular izatea”***.

Lizentzia diziplinen araberakoa izaten da, diziplina bakoitzekoa, eta inoiz ez da 2. edo 3. lizentziatzat hartuko 1. lizentziakoa ez den beste diziplina bateko lizentzia bat.

Adibidez: Lehen lizentzia karateko teknikari gisa izapidetzen bada, 2. lizentzia ezingo da izan kenpoko kirolariarena.

- Gradu Txartela (14 urte artekoak barne) 40 €
14 urte bete arte (14 URTEAK BARNE) kirolariek Gradu Txartela eskatu ahal izango dute, zeinak barnean izango dituen kirol aseguru eta erantzukizun zibileko aseguru.

Afiliazio eta Berrafiliazio prezioak (Klub Lizentzia), 2024rako, honela ezartzen dira:

1. klub lizentzia (afiliazioa) 500 €
2. eta hurrengo klub lizentziak (berrafiliazioa) 140 €

Lehen lizentziatzat hartuko da aurretik federatuta egon ez direnena edo izanagatik, lizentzia eskatu aurreko urtean hura eman ez dutenena.

Dagokion Klub Lizentzia urtean behin bakarrik ordaindu beharko da, eta kluba Euskadiko Federazioari zein dagokion Lurralde Federazioari atxikitzea ekarriko du horrek.

Lehenik eta behin, Klub Lizentzia dagokion Lurralde Federazioaren aurrean izapidetzeko eskatzen dizuegu, aplikazioan alta emateko, eta hartara, kirolarien, teknikarien eta epaileen lizentziak izapidetzen hasteko.



JAKINARAZTEN DA:

Lizentzia eta txartelen izapideak www.karateeuskadi.eus webgunearen bidez egingo dira. Eta horretarako, beharrezkoa izango da klub bakoitzari esleitutako erabiltzaile eta pasahitzarekin identifikatzea.

Lizentziei, txartelei, afiliazioari eta berrafiliazioari dagozkien kuotak nahitaez ordainduko dira dagokion Lurralde Federazioan. Gogorarazten da ezin dela federazio jardueretan parte hartu beharrezkoa den lizentziarik gabe.

KLUB Lizentzia lortzeko, honako hauek bete beharko dira:

- Teknikari arduradun bat izatea, dagokion lizentziarekin, honako hauek beteko dituen:
 - 2024. urtean I. maila izatea
 - 2025. urtean II. maila izatea
 - 2026. urtean III. maila izatea
- Ongizateko arduradun bat izendatzea, LOPIVIn (Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko lege organikoa) ezarritakoa betetzeko.
 - Dagokion prestakuntza egin izana.
 - Sexu Delituen ziurtagiri negatiboa eguneratuta aurkeztea lizentzia eskatzean.
[Izapide guztiak \(mjusticia.gob.es\)](http://mjusticia.gob.es)
- Klubeko idazkariaren ziurtagiri bat aurkeztea, kirol erakundeetan haurrak eta nerabeak babesteko protokoloa onartuta duela baieztatzeko. (Behin bakarrik)

Luzamendu bat ezartzen da 2024ko ekainaren 30era arte, osorik betetzeko. Epea igaro ondoren, eginkizun hori betetzen ez duen klubari baja emango zaio, baita hari lotutako lizentzia guztiei ere, eta ezin izango da inolako konpentsazio ekonomikorik eskatu.

TEKNIKARI Lizentzia lortzeko:

- Behar den titulazioa izatea.
- Sexu Delituen ziurtagiri negatiboa eguneratuta aurkeztea lizentzia eskatzean.
[Izapide guztiak \(mjusticia.gob.es\)](http://mjusticia.gob.es)
- Kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio ziurtagiria aurkeztea. (Behin bakarrik)
[Kirolaren Euskal Eskola Campus Birtuala - LMS \(smartmobile.fit\)](http://smartmobile.fit)

EPAILE Lizentzia lortzeko:

- Behar den titulazioa izatea, behar bezala eguneratuta.
- Sexu Delituen ziurtagiri negatiboa eguneratuta aurkeztea lizentzia eskatzean.
[Izapide guztiak \(mjusticia.gob.es\)](http://mjusticia.gob.es)
- Kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio ziurtagiria aurkeztea. (Behin bakarrik).

[Kirolaren Euskal Eskola Campus Birtuala - LMS \(smartmobile.fit\)](http://smartmobile.fit)

2024rako aseguru medikoa ALLIANZ konpainiarekin hitzartuko da, eta aurreko urteetan bezala, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte iraungo du.

Larrialdiko lehen laguntza nahitaez egingo da, Euskadiko Kirolaren Legean eta istripuetan jarduteko Allianz en protokoloan ezarritakoaren arabera.

Allianzek adierazitako prozedura nahitaez bete beharko da, eta hori egin ezean, estaldura ukatu ahal izango da. Euskadiko Federazioak ez ditu inola ere bere gain hartuko jasotako arreta medikoak eragindako kostuak.

Adeitasunez



Jose Manuel Colas Mosquera
Euskadiko Karate Federazioko lehendakaria

